

4/13 IRIZPENA

“Nekazari gazteen Estatutua” Dekretuari buruzkoa

Bilbon, 2013ko uztailaren 5ean.

I.- AURREKARIAK

2013ko ekainaren 18an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Garapen Ekonomiko eta Lehiakortasun Sailaren idazki bat sartu zen eta “Nekazari gazteen Estatutua” Dekretuaren proiektuari buruzko txostena eskatzen zuen, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Dekretu-proiektuak gazteak nekazaritza-ustiapen profesionalen titularrak izan daitezen eta bertan iraun dezaten du helburu.

Berehala dokumentuaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzairen, proposamenak eta iritzia dituzten horien berri zegoen Lan Batzordean emateko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudiak xedatutakoari jarraiki.

Gizarte Garapenerako Batzordea 2013ko ekainaren 28an bildu zen, irizpen-aurreproiektuaren lehenengo proposamena eztabaidatzeko. Egun berean Batzordeak honako irizpen-proiektua onartu zuen Euskadiko EGAB-k 2013ko uztailaren 5eko Osoko Bilkuran aztertzeko. Hartan aho batez onartu zen.

II.- EDUKIA

Dekretu-proiektuari buruzko testuak hurrengoak ditu: zioen azalpena, zazpi epigrafetan banatutako 29 artikulua, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat.

Zioen Azalpena

Azaldutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-sektoreak iraunkortasun ekonomikoa izateko, neurri handian, gure nekazaritza-ustiapenetan titularren belaunaldi-ordezkapena ziurtatu behar du.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-sektorea zahartzen ari da eta beste produkzio-sektore batzuekin alderatuz, lan-errealitate berezia agerian uzten du, batez ere, bertara iristeko. Nolanahi ere, honako alderdietan labur daiteke:

- Soldatapeko oso langile gutxi dago; Euskadiko nekazaritza-langile gehienak enpresaburuak dira edo ustiapenean familia laguntzeko dihardu. Bestetik, sektorean produkzio-bitarteko nagusiak, nekazaritzarako lurzoruak, erabileren ikuspegitik presioa jasaten du, etxebizitzetarako, industrietarako eta azpiegituretarako erabili nahi baita eta merkatura ateratzen den lurzoru urria neurritz kanpo garestitzen da.
- Sektorean sartzeko inbertsio garrantzitsuei aurre egin behar zaie eta errentagarritasun-maila kontuan hartuta, amortizazio-epeak luze bihurtzen dira eta finantzazioa lortzea oso zaila da.

- Sektorean lan-baldintzak beste lan-jardueratan baino askoz zorrotzagoak dira: jarduera fisiko garrantzitsua, ordutegi finkorik ez, askotan oporrak izateko aukerarik ez... Horri lana landa-ingurunean garatu behar izanaren ondorioz sortutako eragozpenak erantsi behar zaizkio: ekipamendu eta zerbitzu gutxiago, etab.
- Ondorio bezala, ziurrenik, gazteak enplegu horietan sartzeko orduan, zailtasun handienak dituen produkzio-sektorea da. Beste sektore batzuen aldean, horietan sartzeko borondaterik eza da arazoa.

Aldi berean, izapidetzen ari den dekretu-proiektuaren ildo nagusiak 17/2008 Legeak, abenduaren 23koak, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzkoak, VI. Tituluan xedatutakotik atera direla azaltzen da. Bertan zehaztutakoari erreparatuz, nekazari gazteei lehentasunezko tratamendua eskaintzen zaie honako arloetan:

- Berezko plan sektorialak eta laguntza-planak lortzeko orduan.
- Nekazaritza Politika Erkidearen laguntzak, bata Nekazaritza Politika Erkideak sortzen dituen laguntza-eskubideak edo beste eskubide batzuk gordetzeko orduan ere, betiere erkidegoko legeriak ahalbidetzen duenean.
- Nekazaritzarako lurzorua eta produkzio-bitartekoak lortzeko orduan.
- Nekazaritza-ustiapenaren titulartasuna lortu edo elkarteko nekazaritza-ustiapenean, bereziki, kooperatibatan sartzeko orduan.
- Prestakuntza ikastaroetan eta programatan sartzeko orduan.
- Titular onuradunen transmisioetik datozen ustiapenen titulartasuna lortzeko orduan, aldeaz aurretik erretiratzeko laguntzen kasuan.
- Euskadiko landa-ingurunean ekipamenduak eta zerbitzuak garatzea, taldeak nekazaritzaren sektorean sartu eta bertan mantentzeko errazten badute.
- Herri-lurren eta -mendien aprobetxamenduak lortzeko orduan.

Azalpena amaitzeko, Estatutua nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloan eta ekonomiaren antolamendu orokorrekarekin bat, EAERI dagokion aginpe esklusiboa erabiliz egin dela adierazten da, Konstituzioak 148.1.7. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak 10.9.ean xedatutakoaren babesean.

Xedapen-gorputza

I. Epigrafea. Xedapen Orokorrak izenekoan, hain zuzen ere, 1. artikuluan Dekretuaren xedea zehazten da: gazteak nekazaritza-ustiapen profesionalen titularrak izan daitezzen eta bertan iraun dezaten bultzatzea.

2. artikuluan hainbat definizio adierazten da. Zehatz-mehatz esanda, hurrengoak definitzen dira: nekazari gaztea, agroaldea, GazteNek bulegoa, agintaritza eskuduna eta GazteNek prozedura.

3. artikulua xedatutakoaren arabera, Estatutuaren aplikazio-eremua EAE da.

4. artikuluan, berriz, nekazaritzaren sektorean gazteek lehen instalazioa izateko laguntza-prozedura zehazten da. Ildo horri eutsiz, GazteNek prozedurari jarraiki, lehenengoz nekazaritzan jardungo duten gazteen aldeko sustapen-laguntzak eta -neurriak adierazten dira.

II. Epigrafea. Nekazaritzarako lurzorua lortzea izenekoan 5etik 8ra bitarteko artikulua daude eta nekazari hori lortzeko lehentasunak nahiz transmisioak arautzen dira: 5. artikulua. Nekazaritzarako lurzoruen funtsak; 6. artikulua. Agroaldeak; 7. artikulua. Herri-mendiak eta -lurrak eta 8. artikulua. Ustiapenen transmisioa.

III. epigrafea (9tik 14. artikulura) **laguntzei** eta **finantzaketari** buruzkoa da, zehazki, lehen instalaziorako eta inbertsiorako laguntzak, plan eta programa azpisektorialak, Hazilur kapital-arriskuaren funtsa, erakunde finantzarioekin hitzarmenak, laguntza fiskalak (lehenengo 5 urteetan hobariak PFEZn edo sozietateen zergan) eta errenta-aseguruetan nahiz konpentsazio-funtsetan partaidetza (lehenengo 5 urteetan %25eko hobaria) lantzen ditu.

IV epigrafean (15. artikulutik 20. artikulura) **sustatzeko beste neurri batzuk** jasotzen dira, besteak beste, 5 urtez enpresen instalazio eta haztegieta sartzeari, Lanbiden eta sasoiko lanarekiko arreta-planetan lehentasunezko tratamenduarekin langileen kontratazioa laguntzea, elkarrekin erabazten laguntzea (proiektuak puntuatzeko orduan gutxienez %10 gehiago baloratzea), azpiegituren eta ekipamenduen bitartekaritza-zerbitzua, nekazari gazteen partaidetza hizlari politiko eta sozial bezala eta nekazaritza-ekintzailerako saria (Lurralde Historikoko bana).

V. epigrafean (21etik 23. artikulura) **sektorean prestatu eta sartzearrekin** zerikusia duten alderdiak arautzen dira, zehatz-mehatz esanda ondorengoak: nekazaritza prestatzea eta trebakuntza nahiz Eusko Jaurlaritzaren inplikazioa arloan, ordezkapen irekira bultzatzea eta sektoreri hurbiltzeko bekak.

VI. epigrafean zehar (24. artikulutik 26. artikulura) sektorean **bizi-kalitatea** hobetzeko mekanismoak zehazten dira. Hala, nekazari gazteak ordezkatzeko zerbitzuak xedatzen dira hurrengo kasuetan: amatasun eta aitatasunaren ondoriozko eskubideak, behin-behineko lan-ezintasuna eta astialdirako, aisialdirako nahiz atsedenerako eskubideak. Era berean, landamunduan ekipamenduak eta zerbitzuak jartzea, baita etxebizitzetarako laguntzak eskaintzea ere aurrez ikusten dira.

VII. epigrafean Estatutuaren Jarraipen Batzordearen sorrera, konposizioa, funtzioak eta funtzionamendua arautzen dira.

Xedapen iragankorrak zehaztutakoaren arabera, genero-ikuspegia nekazaritza-politikan sartzen dela bermatzeko, emakume nekazarien estatutua onartzen den bitartean, mekanismo zehatzak kontuan hartuko dira.

Lehenengo azken xedapena Dekretua indarrean sartzeari buruzkoa da.

III.- GOGOETAK

III.1. Gogoeta orokorrak

Kontsultatzen ari den arauaren aukera ez da eztabaidatzen, legezko agindu batetik baitator, hain zuzen ere, 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritzaren eta Elikaduraren Politikari buruzkoa; are gehiago, garapenak ia 5 urteko atzerapena daramala esan daiteke, beraz, oraindik beharrezkoagoa suertatzen da.

Arauaren atariak 17/2008 Legeak berak *73. artikuluan. Nekazari gaztearen Estatutua eta ekintza positiboaren politikak* izenekoan aipatzen dituen "ekintza positiboaren neurriak" zehazten ditu eta horrekin Estatutuaren Proiektuari dagokion edukiaren mami nagusia finkatzen da. Beraz, irizpena egiten den arauaren helburuei buruz alegaziorik egitea ez da bidezkoa.

Hala eta guztiz ere, aldeztatik hainbat alderdi edo gogoeta egin behar dira, baita gure iritziz kontuan hartu ere.

Sektorean profesionaltasun-ezaugarriekin sartzeari

Kontsultatzen zaigun Estatutuaren Proiektuan helburu bezala proposatzen da "gazteak nekazaritza-ustiapen profesionalen titularrak izan eta bertan iraunaraztea".

Hain zuzen ere, profesionaltasunaren ezaugarri espezifikoari buruz ohartarazi nahi dugu, egiazko produkzio-sare bizi mantendu nahi bada, ez baita nahikoa bigarren jardura bezala arituko diren edo astialdirako erabiliko duten pertsonak sartzeari.

Horregatik, gure iritziz, artikuluetan beharrezkoa denean eta ez bakarrik 1. artikuluan, helburuak lantzen dituenen, ustiapenaren profesionaltasuna azpimarratu behar da.

Funtsezkoak diren alderdiak ez dira gehiegi zehazten eta ondoren araubidez garatuko direla aipatzen da.

Lehenik eta behin, Estatutuaren Proiektu honen edukari erreparatuz, asmoak Emakumezko Nekazarien Estatutuei buruzko Proiektuan azaldutakoaren antzekoak dira. Horri buruzko irizpena (11/2012 Irizpena) Batzorde honek egin zuen.

Izan ere, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikorako gauzate-prozeduraren txostenean berriaz eta behin eta berriz Estatutuaren Proiektua eta Euskadiko EGAB-k egindako Irizpenean dauden oharra aipatzen dira.

Ildo horri eutsiz, txostengileen oharren artean Ekonomia Kontrolerako Bulegoak (EKB) egindakoak azpimarratzea pena merezi du. Nolanahi ere, horietatik batzuk bere egunean aipatu Irizpenean sartu zirenen espirituarekin bat datoz eta oraingoan ere bidezkoak dira.

Zehazki, kontsultatzen zaigun Estatutuaren Proiektuak 24. artikuluan arautzen dituen ordezkapen-zerbitzuei dagokienez, Emakumezko Nekazarien Estatutuan egin zen bezala, erregulazioa zehaztu behar dela abertitu behar da orain; bestela, asmoen aitorten hutsean gelditu daitezke.

Gure ustez, araubidezko arau erregulatuaren aurrean gaude eta ia bost urteko atzerapenarekin iritsi da, beraz, ez da onargarria adierazpen zehaztugabeak izatea edota etengabe ondoren egingo diren araubidezko garapenetara bidaltzea (ikus 15., 16., 21. eta 22. artikulua).

Helburu nagusi bezala "lehenasunezko tratamendua" (laguntza-planak eta berezko plan sektorialak lortzeko, NPEren laguntzak lortzeko, nekazaritza-lurzorua edo produkzio-bitartekoak bereganatzeko, titulartasuna izateko, prestakuntza-ikastaroak eta -programak egiteko...) erregulazioa duen araudia izanik, "lehenasuntzat jo behar dena" nahikoa ez zehazteak kezkatzen gaitu, EKBk adierazten duen bezala eta prozeduraren txostenean jasotzen den modura.

Era berean, artikuluetan nagusi dira "etorkizunari begira" egindako adierazpenak (arautuko du, lagunduko du, babestuko dira, bermatuko dira, laguntzak zehaztuko dira, aurrez ikusiko du, aholkuak emango ditu, salbuespenak xedatuko ditu, etab.). Hala, funtsezkoena antzemanezina da eta eskuetatik ihes egiten du.

Hori araudian zehar errepikatuko ez balitz eta garapena legeak xedatutakoarekiko hain atzeratua ez balego, ondorengo garapenetara behin eta berriz bidaltzea ulertuko litzateke, baina kasu honetan ezin daitezke erraz justifikatu.

Sektorean sartzea prozesu modura ulertu behar da.

Batzordearen iritziz, sektorean sartzeak prozesu bat izan behar du eta ustiapen profesionala egonkortasunez funtzionatzearekin amaitu beharko litzateke.

Prozesuaren kontzeptuan sektorean sartzeko alderdi guztiak kontuan hartu behar dira: prestakuntza, proiektuaren definizioa, tutoretza eta laguntzak. Horrez gain, errealitate sektorial guztietara moldatzeko malgutasun nahikoa izan behar du, hau da, norbaitek sektorean sartu nahi badu ez da baztertuko eskaerak modu egokian egin ez direlako. Aukera hori legearen ikuspegitik pertsona nekazari gaztetzat jo daitezkeen denboraldi guztian etengabe irekia egongo da.

GazteNEK Bulegoekin izandako solasaldiaren funtsezko garrantzia

Sektorean sartzeko prozesu guztian bide horri etsi nahi dioten pertsonen laguntzeko, Euskadiko EGAB-ren ustez ezinbestekoa da laguntzaileen funtzioak beteko dituztenen inplikazioa eta espezializazioa.

Gure iritziz, nekazari gazte bakoitzak solaskide bakarra izan behar du, proiektua definitzen eta finkatzen lagundu eta orientatzeko. GazteNEK Bulegoak hurbiltasun geografikoa izatea hain garrantzitsua ez delakoan gaude; garrantzitsuagoa da ekintzailea egiaz bere proiektutik hurbil sentitzea.

Ildo horri eutsiz, lehenasunezkoa litzateke GazteNEK Bulegoa osatzen duten pertsonak bakarrik aurkezten zaizkien proiektuetan lagundu eta hobetzen aritzea. Laguntza eskaini beharko litzateke jardura finkatua egon edo bertan behera utzi arte. Zalantzarik gabe, pertsona guztiei gogoia kentzen zaie sektorearen konplexutasun burokratikoaren ikusten dutenean eta, ondorioz, arin jarduten duten bulegoak izanez gero eta horiek helburuak lortzeko malgutasun handia badute, bi alderdi horiek ekimen ororen arrakasta edo porrota defini dezakete.

III.2 Gogoeta espezifikoak

Zioen Azalpena

Honako aldaketak proposatzen dira:

2004. urtean EAEn Nekazari Gazteen Plana jarri zen abian...

...

Gaur egun nekazaritza-ustiapenen titular askoren zahartze-maila nekazaritza modernizatzeko eta, ondorioz, **produktzio-sare bizia lortzeko** eragozpen nagusietako bat da; hortaz, Estatutu honen xede nagusia gazteek **ustiapenarekiko ustiapen profesionalerako** erantzukizuna eta titulartasuna izateko erraztasunak ematea da.

...

2. artikulua. Definizioak

Hurrengo definizioa sartu eta lodiz agertzen den hainbat aldaketa sartzea proposatzen dugu:

- **Nekazaritzako eta abeltzaintzako oinarrizko dimentsioak: legeria sektorialaren eta zona-parametroen arabera kalkulaturako nekazaritza-azaleraren eta azalaren multzoa, ekoizleak 19/1995 Legeak, uztailearen 4koak, Nekazaritza Ustiapenak Modernizatzeari buruzkoak, 2. artikuluko 12. atalean aipatzen duen Erreferentziako Errenta lortzeko.**
- **GazteNek bulegoa: EAEn nekazaritzaren sektorean sartu nahi duen pertsona gazte orori aholkularitza integrala eta, hala badagokio, jarraipena ahalbidetzen eskaintzen dion zerbitzua.**

4. artikulua. Nekazaritzaren sektorean gazteak lehenengoz instalatzea

Ondorengoa eranstea proposatzen da:

1. Gazteak nekazaritzaren sektorean **profesionaltasunez** errazago sartzeko, GazteNek prozedurarekin bat nekazaritzan lehenengoz arituko diren gazteentzat laguntzak eta bestelako sustapen-neurriak zehaztuko dira.

....

5. artikulua. Nekazaritzarako lurzorua funtsak

Hurrengoak eranstea proposatzen da:

193/2012 Dekretuak, urriaren 2koak, Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzarako lurzorua kontserbatzeari eta sustatzeari buruzkoak, 6. artikuluko 2. atalean xedaturakoa alde batera utzi gabe, jada instalatuak dauden nekazari gazteek edo nekazaritzaren sektorean **profesionalki** aritu nahi diren pertsona gazteek Lurraldeko Nekazaritzarako Lurzorua Funtsan ustiapenaren kokapenean eskura dauden nekazaritza-lurzorua aktiboak esleitzeko orduan, lehentasuna izango dute, **nekazaritzarako eta abeltzaintzarako oinarrizko dimentsioak lortu arte.**

7. artikulua. Herri-mendiak eta -lurrak

Honako aldaketa proposatzen da:

1.- ...

2.- Nekazaritzaren sektorean **ustiapen profesionalen titulartasunean instalatzen sartzan** diren pertsona gazteentzat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioek ustiapenaren titulartasuna lortzen dutenetik zenbaten hasita,

lehenengo bost urteetan salbuespenak zehaztuko dituzte. Besteak beste, salbuespenak honako baldintzetara aplikatu ahal izango dira:

10. artikulua. Plan eta programa azpisektorialak

2. puntuan "kolaborazio" egiturak sartzeari gomendatzen da eta, ondorioz, honako moduan idaztea:

2. Nekazari gazteak elkarre- ~~ede~~ kooperatiba- **ala kolaborazio**-egitura batean integratuak badaude edo bertan sartzeko konpromisoa hartu badute, ekintza positiboa handiagoa izango da.

....

16. artikulua. Langileak kontratatzea

Gure iritziz, artikulua garatu behar da, gehiago argudiatzeko. Eta hala egin behar da, adibidez, Enpleguaren Politika Aktiboei lotutako laguntzak ekonomia- eta gizarte-eragileek iritzia eman dezaketen arloei buruzkoak izan baitaitezke eta iritzi hori entzun beharko bailitzateke.

17. artikulua. Elkarrekin egituratzeko laguntza

Artikuluetan hurrengo aldaketak egitea gomendatzen da:

1. Nekazaritzaren elkarre- ~~ede~~ kooperatiba- **ala kolaborazio**-egituraren kide diren pertsona gazteek proiektuak puntuatzeko orduan gutxienez baremoaren %10 gehiago izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-administrazioek egindako deialdietan.

2. **Beren ustiapenetan lortzen dituzten produktuekin** nekazaritzako elikagaien kateari dagozkion maila desberdinetan **diharduten** kooperatibatan sartzeko eta, bereziki, kooperatibatan baja sortzen duten pertsonen ordezkari gazteak sartzeko laguntzak zehaztuko dira.

...


IV.- ONDORIOAK

Euskadiko EGAB-ren iritziz, "nekazari gazteen estatutua" Dekretuaren Proiektua izapidetzea egokia da, kontsulta-organo honek egindako gogoetekin.

Bilbon, 2013ko uztailaren 5ean.



Presidentearen oniritzia
Juan María Otaegui Murua



Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos